

KUTXABANKEK ETA BERE AKZIODUNEK, BBK, KUTXA ETA VITAL FUNDAZIOEK, 2020AN IZANDAKO INPAKTU EKONOMIKOAREN AZTERKETA

Hornitzaileei egindako erosketen, langileei egindako ordainketen, zerga, tasa eta kotizazioen ordainketaren eta emandako kreditu berriaren batura da.

Kutxabankek 3.561 milioi euro sartu zizkion euskal ekonomiari 2020an

- **Bankuaren eta haren akziodunen jarduerak % 1,02ko eragina izan zuen EAEko BPGean, finantzaketa kontuan hartu gabe**
- **Guztira 4.552 euskal hornitzaile kontratatu ziren, eta 227 milioi euroko erosketak egin zitzaizkien**
- **5.400 langile baino gehiago ditu banku-jardueran, eta 700 langile baino gehiago konpainia filialetan eta banku-fundazioetan**

2021eko ekainaren 23an. Inpaktu ekonomikoari buruz CEPREDEK Kutxabankentzat urtero egiten duen azterlanak agerian utzi du, beste behin ere, Banku Taldea eta haren akziodun fundazioak direla euskal ekonomia **garatzeko eragile nagusietako** bat.

Gregorio Villalabeitia Kutxabankeko presidentek txosten horren ondorio nagusiak azaldu dizkio **Iñigo Urkullu** lehendakariari, Lehendakaritzaren egoitzan izandako topaketa pertsonalean.

Azterketak eman duen datu esanguratsuenetako baten arabera, nabarmentzekoa da, aurreko urteko testuinguru zailean ere, herrialdeko ekonomia suspertzeko egin zituen

gastu eta zuzeneko inbertsioen tamaina edo garrantzia, baita bere ekarpen fiskalen egonkortasuna ere, ekonomiaren hondatze larria eta, ondorioz, zerga-sarrereren murrizketa ekarri zuen egoeran.

EUSKADI

- **227 milioi hornitzaileei**
- **223 milioi soldatatan**
- **169 milioi zerga eta kotizazioetan**
- **2.942 milioi kreditu berritan**

Izan ere, Kutxabank Taldeak **3.561 milioi euro** sartu zizkion euskal ekonomiari **hornitzaileei, langileei, administrazio publikoei** egindako ordainketen bidez **eta** partikularrei, enpresei eta lurralde-erakundeei emandako **finantzaketa berriaren** forman.

Inbertsio horren azterketak erakusten du Kutxabank eta fundazio akziodunak **euskal enpresen kontratatzaile nagusien** artean egon zirela, gehienak konfinamenduan eta ondorengo deskonfinamenduan jarduera ekonomikoari eusteko funtsezko sektoreetakoak, adibidez, zerbitzuen, eta, zehazkiago, informatika eta informazioaren teknologien sektoreetakoak.

Kutxabank Taldeak iaz EAEko enpresa-sareko **4.552 enpresekin** lan egin zuen, eta **227 milioi** euroko erosketak egin zizkien, 2019an baino % **5** gehiago. 2020tik, eta pandemiak iraun bitartean hornitzaileei laguntzeko, ordaintzeko epea 15 egunera murriztu zen batez beste.

Gainera, zuzeneko **3.300 lanpostu** baino gehiago mantendu zituen Euskadin, eta euskal diru-kutxa publikoek **169 milioi** euro jaso zituzten tasa eta zergatan; beraz, Euskadiko **enpresa zergadun nagusietako** bat da.

Hala ere, bulego gehienak irekita eta langile guztiak lanean eduki zituen urte konplexu hartan, Taldearen ahalegin nagusia ETEei, enpresei eta erakundeei **kreditua bideratzen** jarraitzea izan zen, euskal ekonomia-sarearen produktibitatea mantentzeko eta suspertzeko laguntza publikoak kudeatuz. Kutxabankek **2.942 milioi** euro bideratu zituen partida horretara.

Euskal BPGaren % 1,02ko inpaktua

Ekoizpenari, errentak sortzeari, enpleguei eta zerga-itzulkinei dagokienez Euskadin sortzen diren ondasun eta zerbitzuen fluxu eta transakzioak aztertzean ikus daitekeenez, Taldeak eta BBK, Kutxa eta Vital banku-fundazioek herrialdeko ekonomian izandako inpaktu positiboa **760 milioi** eurokoa izan zen, hau da, Euskadiko ekonomiaren **BPG osoaren % 1,02**koa.

Azterlanak, halaber, Kutxabanken kreditu-jarduerak eragindako **zeharkako eta eragindako ondorioak** ere zehazten ditu. Bankuak enpresei eta partikularrei zuzenean eta zeharka bideratutako finantzaketak **7.892 milioi** euroko ekarpena egiten dio euskal BPGari, hau da, % **10,5**koa.

Zuzeneko, zeharkako eta eragindako jarduera batuta, Kutxabank Taldeak eta banku-fundazioek 8.650 milioi euro, **BPGaren % 11,5**, sortzen laguntzen dute, 12.000 lanpostu baino gehiago mantentzen ere bai, Euskadiko guztizko **enpleguaren % 13** inguru alegia, eta 3.237 milioi euroko zerga-bilketa egiten.

	ACTIVIDAD CORPORATIVA			ACTIVIDAD FINANCIACIÓN		
	PIB	EMPLEO	IMPUESTOS	PIB	EMPLEO	IMPUESTOS
DIRECTO	508	3.301	169	-	-	-
INDIRECTO	243	3.457	86	7.555	109.972	2.859
INDUCIDO	9	122	3	337	4.497	120
TOTAL	760	6.880	258	7.892	114.469	2.979
	1,02%	0,74%	0,35%	10,55%	12,24%	3,98%

6.100 langile baino gehiago eta 820 bulego

Kutxabankek bulegoak edo kutxazainak ditu **Euskadiko 251 udalerrietako 196tan**, udalerrri guztien % 78tan, eta **euskal herritarren % 99k** gutxienez sukurtsal edo kutxazain bat du bere herrian. 1.000 biztanletik gorako herrien kasuan, **151 udalerrietatik 131n** (% 86,7an) dagoen banku-erakunde bakarra da, eta 2.500 biztanletik gorako udalerrien % **100ean** dago.

Taldeak eta banku-fundazio akziodunek **6.100 langile** baino gehiago dituzte, eta gehienak, 5.400 langile, banku-jardueran aritzen dira zuzenean.

2020an, Taldeak **Espainia osoan** guztira **1.355 milioi** euroko baliabideak sortu zituen, hau da, BPGaren % **0,1**. Gainera, **581 milioi euroko zerga-bilketa** eragin zuen, kontribuzio, zerga eta tasatan.

Kreditu-jarduerari dagozkion datuak gehituta, azterketaren arabera, Kutxabanken eta banku-fundazioen jarduerak ekonomia nazionalean duen eragina **21.916 milioi** eurokoa da –Espainiako BPGaren % 1,8koa–, eta **347.000 lanpostutik** gorakoa.

Guztira, Espainian **8.767 enpresak** ematen diete zerbitzua finantza-erakundeari eta banku-fundazio akziodunei, horiek **385 milioi** euroko gastua egin zutelarik hornitzaileei ordaintzeko.